TALAIA
BH Institutua
HONDARRIBIA

<table>
<tr><th colspan="2">IKASGAIAREN IZENA: EKONOMIA</th></tr>
<tr><td>DEPARTAMENTUA</td><td>MINTEGIA: GEOGRAFIA-HISTORIA</td></tr>
<tr><td>ZERTARAKO</td><td>Gure eguneroko bizitzan ekonomiak eragin zuzena du (hitzarmen kolektiboa, soldaten gorabeherak, zergak, banku-diruaren erabilera, sektore publikoaren aurrekontuak,…). Ikasgai honetan mikro eta makroekonomiaren kontzeptu orokorrak finkatuko ditugu, gehiegi sakondu gabe. Pertsona eta familia guztiek jakin eta ulertu beharko lituzketen kontzeptuak dira.</td></tr>
<tr><td>ZER IKASIKO DUZU</td><td>Landuko diren gaiak honako hauek dira:
<table>
<tr><th>1. ebaluazioa</th><th>2. ebaluazioa</th><th>3. ebaluazioa</th></tr>
<tr><td>1. Ekonomia, zientzia baliagarria<br>2. Ekoizpena eta hazkundea<br>3. Merkatuak eta enpresa<br>4. Enpresa eta haren ingurunea</td><td>5. Finantzen plangintza<br>6. Finantzen osasuna<br>7. Dirua eta hura erabiltzeko moduak<br>8. Ekoizpena eta prezioak</td><td>9. Lan-merkatua<br>10. Estatuaren kontuak<br>11. Nazioarteko merkataritza eta Europar Batasuna<br>12. Globalizazioa eta munduko ekonomiaren desorekak</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>METODOLOGIA</td><td>Irakasleak, testu-liburua erabiliz, gai bakoitzaren eskema-laburpena prestatuko du, ikasleek lan hau egiteko oinarririk ez dutelako. Honetan oinarriturik, kontzeptuen azalpena emango du. Kontzeptuak finkatu eta gero, ikasleak gai izango dira testu-liburuan agertzen den informazio osagarria ulertzeko (argazkiak, grafikoak, ariketa praktikoak,…). Horrezaz gain, liburuko ariketak eta talde-lanak egingo dira, bideoak eta pelikulak ikusiko ditugu,…</td></tr>
<tr><td>EBALUAZIOA</td><td>Froga idatziak, lanak (bai klasean egiten ditugunak, baita etxerako bidaltzen ditugunak ere) eta gelako ariketak hartuko dira kontutan ikaslea ebaluatzerakoan.</td></tr>
<tr><td>OHARRAK</td><td></td></tr>
</table>